

GIPUZKOAKO ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA **SAREA PROGRAMAREN 2016KO LAGUNTZA DEIALDIA**

Deialdiaren xedea:

Diru-languntzen xedea da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea osatzen duten Gipuzkoako entitateei sostengua ematea, ikerkuntza eta inbertsio proiektuen bitartez.

Entitate onuradunen eskakizunak:

- Deialdiak eskatzen du irabazi asmorik gabeko entitateak Gipuzkoan kokatuak izatea. Beraz, UPV/EHUren kasuan, ikertzaileek Gipuzkoako Campusean ezarritako departamentu edo institutuak izan behar dute.
- Ezin aurkeztuko dute I+G proiekturik UPV/EHUn A motakotzat hartzen diren ikerketa taldeek, sailkapen horregatik Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailaren eta Ikerbasque Fundazioaren diru-laguntzak jasotzen baituzte.

Pertsona ikertzaile nagusiaren eskakizunak:

- UPV/EHUREkin harremanean egon behar du estatutuen edo kontratu baten bidez, eskaera aurkezteko unetik eta proiektua gauzatzen den denbora guztian.

Ikerketa taldeko kideen eskakizunak:

- UPV/EHUREkin harremanean egotea funtzionario izanda, edota estatutuen edo kontratu baten bidez, eskaera aurkezteko unean.

GARRANTZITSUA: Laguntza gauzatzen ari den bitartean UPV/EHUREkin duten harremana eteten duten ikerketa taldeko kideek ezin inputatuko dituzte gastuak egoera horrek dirauen bitartean. Pertsona Ikertzaile Nagusia izango da proiektua gauzatzen ari den bitartean Ikerkuntzako Errektoreordetzari zer bajak izan diren jakinarazteko arduraduna.

UPV/EHUko taldeek zer proiektu motatan parte har dezaketen:

- Ekipamendu eta azpiegitura zientifiko-teknologikoetan inbertitzeko proiektuak.
- Fabrikazio aurreratua, energia eta biozientziak/osasuna arloetako I+G proiektuak.

Proiektu horiek egin ahal izango dituzte unibertsitateetako ikerketa talde eta egiturek, Osasun Ikerkuntzako Institutuetakoek, zentro handien Negozio Unitateetakoek eta 2. Oinarrian aurreikusitako eskakizunak betetzen dituzten entitateetakoek.

Aurrekontua lantzeko jarraibideak:

Ekipamendu eta azpiegitura zientifiko-teknologikoetan inbertitzeko proiektuak:

Kasu honetan, Aldundiak egingo luke diru-laguntza jaso dezakeen kostuaren % 50eko ekarpena, eta, ondorioz, pertsona ikertzaileak aditzera eman beharko du gainerako % 50 zer organikotik finantzatu den.

Fabrikazio aurreratua, energia eta biozientziak/osasuna arloetako I+G proiektuak.
Diru-laguntza jaso dezakeen kostuaren % 100 arte.

GARRANTZITSUA: UPV/EHUren Estatutuetoako 315. artikulua garatzen duen araudia argitaratzeko manua ematen duen 2008ko apirilaren 29ko Ebazpenean ezarritakoa betetzeko, IIPak ezin jasoko du nomina gisako ordainsaririk deialdi honen bidez. Deialdiaren oinarriek berek debekatzen dituzte esplizituki horrelako kobrantzak.

Eskaeren epea eta aurkezteko era:

Eskaerak aurkezteko epea 2016ko maiatzaren 25eko 13:00etan amaituko da.

Eskaera aurkezteko bi bide izango dira:

- **Aplikazio informatikoa:** Dagokion esteka sakatuta, web orri honetan: <http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DMSPortalSubvencionesWEB/ficha.do?materia=&perfil=&lineaAyudaFicha.codigoDepartamento=2&lineaAyudaFicha.codigoServicio=INCIEN&lineaAyudaFicha.ejercicio=2016&esBusqueda=SI>
- **Paper formatuan:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistro Nagusian, Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko departamentuaren Erregistro Orokorrean (Gipuzkoa plaza, z/g Donostia), edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan aurreikusitako beste edozein bidetik.

UPV/EHU-N TRAMITATZEA:

Pertsona ikertzaile nagusiek berek izango dute eskaera forma eta epe egokian aurkezteko ardura, Ikerkuntzako Errektoreordetzak ez baitauka aplikaziora sartzeko biderik.

Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko departamentuak eskabideak Ikerkuntzako Errektoreordetzari igorriko dizkio, legezko ordezkariak sinatuz onar ditzan. "Ekipamendu aurreratuan inbertitzeko proiektuen" kasuan, pertsona ikertzaile nagusiak une horretan eman beharko du aditzera gainerako % 50 zer organikotik finantzatu den.

Harremanetarako telefonoa (UPV/EHU)

94 601 80 08

E-mail: convocatorias.dgi@ehu.es

Harremaneko pertsona (Gipuzkoako Aldundian)

Maite Salustiano Esnoz

Tel.: 943 11 22 33

E-mail: msalustiano@gipuzkoa.net

Informazio gehiago:

<http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DMSPortalSubvencionesWEB/ficha.do?materia=&perfil=&lineaAyudaFicha.codigoDepartamento=2&lineaAyudaFicha.codigoServicio=INC IEN&lineaAyudaFicha.ejercicio=2016&esBusqueda=SI>